

B

BARREN

**“Mundua
aldatzeko
gizonak ere
fregatu egin
behar du ”**

Luis Cerron, irakaslea eta idazlea



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza




Bigarren hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskola
Kalamua, 8
Tel.: 943 74 08 79
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net

Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Apirilak 5
MATRIKULAZIOA
2008 - 2009
Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
MARTXOAREN 31tik APIRILAREN 11ra



Elgoibarko Institutua
San Roke, 11
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

Ama aktiboa

Ama izan eta zazpi hilabetera, kurrikuluma prestatzen hasi naiz. Iritsi da lan bila hasteko unea eta bidegurutzean aurkitzen naiz. Nire egoeran dauden beste emakume asko bezala, zer erabaki jakin ezinda nago: zeri eman lehentasuna, lanpostu ona izateari ala alabarekin denbora gehiago pasatzeari?

Berdintasunerako bidean, emakumeok gizonetzkoen parekoak garela aldarrikatu izan dugu; etxean eta eskolan, lantegian edo kalean. Eta lortu ere bai batzuetan. Gizonetzkoek eraturako sistema honetan, emakume askok urrutira iristea lortu dute. Badaude emakume zientzialariak, banku zuzendariak, medikuak edota injinieruak.

Baina zer gertatzen zaigu ama bihurtzean? Halako batean, emakumeok gure barnean bizitzaren eztanda sentitzen dugu eta animaliak garela gogorarazten diguten sentimenduz betetzen zaigu gorputza. Ama-sena.

Badirudi Naturak ez duela kontuan izan berdintasun legea eta emakumeoi bakarrik eman digu ama izateko aukera. Aukera zoragarria, baina era berean, erantzukizun handia. Senak diosku guri begira dagoen haurtxoa besoetan hartu eta denbora, maitasuna, pazientzia eskaintzeko. Halere, nola uztartu hori dena 8-10 orduko lanaldiarekin? Edo nola lortu gainontzeko

lankideen parean egotea egun erdiko lanaldiarekin? Zaila da "ama aktiboa" izan eta lantokian konpetitiboa izatea. Lan mundua gizonetzkoek ezarritako arauen arabera antolatuta baitago oraindik sektore gehienetan.

Egia esan, apur bat zapuztua sentitzen naiz. Ikasketak burutzeko eta lanpostu ona lortzeko hainbat ahalegin egin ondoren, inguru lehiakor honetan, arrakasta profesionala eta amatasuna uztartzea uste baino zailagoa dela konturatu naiz. Oraingoz, alabari emango diot lehentasuna. Gero-gero.

Ane Guillo



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Arrakasta profesionala eta amatasuna uztartzea uste baino zailagoa dela konturatu naiz".



LUIS CERRON
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

"Nire bizitza etengabeko bilaketa eta kuestionamendua da"

Egin
klik
eta
ikusiko
duzu

www.elgoiBARREN.net



LUIS CERRON

IRAKASLEA ETA IDAZLEA

“Laguntza
hitzarekin
emakumeak
aspertuta daude”

“Friego, luego existo” (Entrelíneas editores) da kaleratzen duen lehen liburua. Orain dela asko hasi zen prestatzen, Filosofia ikasten zebilenean. Sasoi hartan hizkuntzaren erabilera ez sexista zuen aztergai, bere ustez aurrean duen pertsonari merezitako errespetua agertzeko, lehenik eta behin hizkuntza zaindu behar baita. Lagun batzuk ere animatu egin zuten gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tirabiren inguruan hausnartzeko. 87 orrialdeko saio arina osatu du. Elgoibarko liburu dendetan salgai dago 10 euroren truke. Madrilen ere aurkeztuko du liburua.

Elkarizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Jendea zirikatu nahi zenuen?

Bai, hori zen asmoa. Askotan hitz egiten dugu gai honen inguruan, baina uste nuen zerbait gehiago egin behar zela. Horregatik hizkuntza xehea eta arrunta, eta askotan errepikatzen diren esamoldeak erabili ditut. **Baina etxekoandre askok ez dakite nor den Descartes edo Aristoteles. Euren bizitzan eragina izan dute?**

Bai. Badakit jende askorentzat horrelako gauzak liburu arrunt batean aipatzea arriskutsua dela. Emakume askok esan didate lehenengo kapitulua ez dutela ulertu. Nire asmoa gutxienez filosofo haien berri izatea zen.

Bereziki Cartesianen, "Pentsatzen dut, beraz existitzen naiz" esaldi ezaguna...

Esaldi hori gauza batzuetarako ona izan zen, baina filosofo horiek esandako guztia nahiko motz geratzen zen. Pertsona batzuentzat zegoen pentsatua. Emakumeak kanpo geratzen ziren.

"Deskartatu" egin zituen....

(*Barreak*) Hori da. Fregatu esaten dudanean mundu guztiaz ari naiz. Lehenengo norbera hasi behar da fregatzen.

"Liburuaren bitartez gizon elkarte mordoak ezagutu dut; jende asko dago lanean"

Aristotelesek ere esaten zuen emakumea ez zela "erabateko gizona"...

Pentsa, garai hartan eta geroago ere, Aristoteles kristorena izan da eta oso pertsona jakintsua. Batzuek uste dugu berak zioen guztia ez zela zuzena.

Liburuaren hasieran emakume eta gizonen ari zara eta bukaera aldean pertsonen hitz egiten duzu. Zergatik bukaeran?

Hasieran gaur egungo egoera kontatu nahi izan dut, bukaeran beste modu batera joatu behar dugula zehazteko.

Etxekoandreak ere izan dira matxismoaren igorleak...

Ez ditut ez gizonen ez emakumeen kritikatzen. Batetik, emakume askok hori

ikasi dute txikitatik, etxeko lanak egin behar dituztela. Bestetik, gizon asko beldur dira, ez dutelako etxeko lanak egin behar izan. Ulertzen dut oso zaila dela hori aldatzea, prozesu luze baten ondorioa dela.

Laguntza hitza erabiltzen da oraindik, emakumeak mesede egingo balitzaio bezala....

Laguntza hitzarekin emakumeak aspertuta daude. Konpartitu egin behar da. Gizon batzuek oraindik esaten dute gutxi lagundu egiten dutela; pentsamendu hori aldatu egin behar da.

Ez-matxista xumetzat duzu zure burua. Gero eta gehiago daude?

Liburua argitaratzera animatu banaiz, horregatik izan da. Gizon guztiak ez gara berdinak. Ni bezalako gehiago daude, eta bakarra ez nintzela adierazi nahi nuen. Hori esan egin behar da, bestela jendeak pentsatu lezake gauzak ez direla aldatu. Liburuaren bitartez gizon elkarte mordoak ezagutu dut. Jende asko dago lanean, baina emakume asko ez dira fidatzen, eta hasieran errezeloa izaten dute.

Liburuan zera idatzi duzu: "Gizon askorentzat planteamendu berriak baldintza gogoregiak dira".

Emakumeak etxean ardura asko hartzeko joera du eta gero ikusten dugu, emakumeak ez dagoenean, gizon askok ez dakitela zer egin. Berdintasunean funtzionatzen badugu, gizonen ikasiko dute euren eskutik dagoela independentzia.

Gizonekoa da sexu ahula?

Saso batean emakumea sexu ahula zela esaten zen gizonaren estatusa mantentzearen. Ez da sexu ahula, *Supervivientes* edo *El conquistador de fin del mundo* ikusteak besterik ez dago. Baldintza gogorretan ere ahalmen handia dute.

Erresistentzia handiagoa dute...

Bai, erresistentzia izugarria dute. Bere esperientziaren arabera da pertsona ahula ala gogorra.

Zure bizitzako esperientzia zein izan da?

Hamabi urtera arte, hiru mutil ginen. Saia-kera bat egin zuten gurasoek neska bat izateko, baina laugarrena ere mutila izan zen. 12-13 urterekin erratza pasatzen genuen, mahaian platerak jarri eta kentzen genituen. Gogoratzen dut garai hartan hasi zela nire aita zerbait etxean egiten. Nire amak esaten du ezkutuan egiten zuela, hori ez zelako ohikoa garai hartan. Gero ni ha-

mahiru urterekin kanpora joan nintzen ikasgela. Bi urte eta erdi egon nintzen beste leku batean.

"Fregatu esaten dudanean, mundu guztiaz ari naiz, norberagandik hasita"

Non?

Seminario batean. Gauza guztiak guk egin behar izan genituen. Gure lana zen. Hori laga eta Irakasle ikasketak egitera joan nintzen Donostiara. Pisuaren ere mutilak izan ginen denok, eta besteei bezala etxeko gauzak egitea tokatu zitzaidan. Hori amaitu eta bakarrak bitzen hasi nintzen, eta gauza guztiak nik egin behar nituen. Nire esperientziak eraman nau egoera honetara. Gauza arrunta izan da etxeko lanak egitea. Nik ahal badut, edozeinek ahal du. Ez zitzaidan okurrizten pentsatzea neska bat egongo balitz ez nukeela ezer ere egingo.

Mundua aldatzeko gizonak ere fregatu egin behar du?

Bai. Gauzak esperimentatu egin behar dira. **Liburuak salgai daude. Lagunei oparitzeko tentaldirik izan duzu?**

(*Barreak*) Hori izan da gogorrena, bestela ia ale guztiak doan joango liritekeelako. Kontrolatu egin behar izan dugu. Argitaletxearekin batera 500 ale ateratzea erabaki nuen.

Argitaletxea lehenik ere ezagutzen zenuen?

Famatua ez bazara ezinezkoa da zerbait argitaratzea. Interneten begira hasi nintzen eta *Entrelineas editores* topatu nuen. Promoziorako lan dezente egin behar dugu zerbait lortu nahi badugu. Denbora mordo pasatu nuen pentsatzen eta erabakitzen liburua atera behar nuen ala ez. Heziketa mundua da nirea, eta horretan oso gustura nabil. Baina lagun batzuk behin eta berriro komentatzen zidaten merezi zuela kalera-tzea eta zabaltzea, eta azkenean animatu egin nintzen.

Amalurra

Udaberria, urtearen hasiera

Baserriko lanak urtaroei lotuta egon dira beti, beste edozein lanetan baino gehiago. Urtea, beraz, udaberriarekin batera hasten zela esan liteke.

Patata ereiteari ekiten zitzaion lehenik. Martxoan hori egiten zen. Negua luze joanez gero, Udaberriaren zain egoten dira nekazariak. “Etxeko sabaia amaitzen bazen, edo etxeko belarrak txikiak zirenean, ganaduak larrean bazter batean egoten ziren eta txahalentzat ekarri behar”, azaldu du Jose Zubizarreta *Armaixak*.

Artoa

Udaberriko beste lan garrantzitsu bat artoa ereitea izan da inguruetakoa baserrietan. Maiatzean ekiten zaio artoa ereiteari. Horretarako lurra ondo prestatzea ezinbestekoa da. “Zimaurra, kortakoa ahal zen guztia atera behar da”, Armaixaren esanetan. “Lurra ez dago engainatzerik. Eman egin behar zaio”, gaineratu du. Kontuan hartu beharra dago inguruko baserrietan sail handiak lantzen zirela lehen, aldapatsuak izan arren. Artoa animalientzako erabilgarria arren, lehenago arto irinarekin taloak jaten zituzten andre-gizonak eta elikagai garrantzitsua zen.



Artoa bi aldiz jorratzea komeni da. Artoarekin batera babarrunak ereiteko ohitura handia dago. Izan ere, bi landareak ondo datoz elkarrekin.

Udaberrian lan handia pilatu izan beti da baserrietan. Uztail erdialdean garia eto-

rriko zenez, ordurako hainbat lan aurreratzeko ezinbestekoa zen: artoa jorratu, belarra ebaki...

“Baserri txikietan lana, sobre. Zelan edo hala lanok egiten genituen”, azaldu du Jose Zubizarretak.

Sasoian sasoikoa

Ilarrak

Seguruenik baratzeko produkturik preziatuena ilarra da udaberrian. Freskoek ez dute kontserbazkoekin eta izoztuekin zerikusirik. Hemengo baserrietako ilar freskoak laster egongo dira azokan salgai. Aste honetan Ordiziako azokan hamabi euroan izan dira.

Orain dela milaka urte ekin zion gizakiak ilarrak ereiteari. Hala ere, XVI. mendera arte lehortuta eta forrajarako erabiltzen zen.

Ilar fresko gordinekin entsalada zoragarriak egin litezke, batez ere aleak txikiak badira. Dena dela, ilarra hainbat osagairekin ondo dator: arroz, pasta eta barazkiekin, esate baterako.

Ilarraz gain, hurrengo asteotan sasoiako beste hainbat produktu izango dira azoketan: baba beltzak, azaloreak, berakatz freskoak, kipulina, letxuga, aza, azalorea, brokolia, azelgak, espinakak, eskarolak...



Koldo Lizarralde Elgoibarko nekazaritzari buruzko lana kaleratu du



BElgoibarko nekazaritzari buruzko lan etnografikoa eman du argitaratu Koldo Lizarralde idazle eta ikerlariak. Lizarralde Etniker taldearekin dihardu “Euskalerriko Atlas Etnografikoa” osatzen. Elgoibarri buruzko hainbat gai ikertu ditu atlaserako (herri medikuntza, elikadura, heriotza, haur-jolasak...) eta Labayru ikastegiak nekazaritzakoa argitaratu berri dio.

Argitaratutako artikuluan Elgoibar inguruko auzo batzuetako baserri-bizitza deskribatu du Lizarralde. Ereiteari, uztaroari eta baserri-tresnei garrantzi handia eman die. Horrez gain, laborantzak eta fruta-arbolak landatzeko prozesuak zehazten ditu. Egileak nekazaritzari buruz egin duen lan zabalago baten lehenengo zatia da. Hamabost laguni egindako elkarrizketen bidez osatu du lan hori.

Joxemiel Barandiaranek “Euskalerriko Atlas Etnografikoa” egiteko galdetegi zabala prestatu zuen eta Lizarralde galdetegi horri jarraituz egin ditu lanak.

Hileroko azoka berrindartu egin nahi du Udalak

Azken zapatuko ganadu azoka berriz indartzeko asmoa agertu du Elgoibarko Udalak. Lehenago azoka arrakastatsua bazen ere, gaur egun horrenbeste jende ez du erakartzen eta giroa nahiko motela da. Azoka sustatzeko asmoa egon arren, oraindik hainbat gauza lotzeke daude. Dena dela, azoka berrindartzeko ideia batzuk plazaratu ditu Udalak.

Izan ere, azoka gunea handitzeko asmoa du (Kultur Etxe ondora eta Leku Ederrera). Leku Ederren azokako beste iharduera batzuk sartu litezke, Udalak eta Debemenekek erositako karpa erabiliz, beharbada. Horrez gain, herri kirol ikuskizunak eskaintzeko aukera ere ikertzen dihardu.

Azoka promozionatzeko, hileroko produktu bat sustatzeko ahalegina egin lezakete, gainera. Ekitaldiren bat edo beste ere antola lezakete jendea azokara erakartzeko.



Gazta marka berriak artisauei ez diela eragingo uste du Mausitxak

Idiazabal jatorriko gazta egiten duen Mausitxa baserrira jo du BARRENeK, iritzi bila, egunotan zeresan handia eman duen gaia dela-eta: Aldanondo enpresak Etxegarate gazta marka aurkeztu berri du.

“Beste marka bat gehiago da, industrialia”, dio Mausitxako Jesus Mari Ansolak. Bere ustez, Aldanondori Idiazabalen irregularitasunak aurkitu ondoren kaleratu dute marka berria. Orain, “itxuraz antzerako gazta ateratzen ahalegindu da eta jendea konfunditu nahian dabil. Goi mailako gorabeherak direla-eta, pul-soa bota egin nahi izan dio denomizazioari”, Ansolaren ustez. Izan ere, marka berriaren etiketak eta ize-nak berak kontsumitzaile batzuk nahastu litzake.

Dena dela, marka berria Idiazabal gaztaren imitazioa modu industrialean egiten ahaleginduko bada ere, “ez digu gehiegi eragingo”, dio Mausitxak. Azken batean, marka industrial berriaren eta Mausitxa bezalako artisauen merkaturia erabat ezberdina da. “Gaztak oso ezberdinak dira kalitate aldetik. Elaborazioa ere ez da gurearen modukoa: guk mimo handiarekin egiten dugu”, gaineratu du





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ametsak egia bihurtuz... amestu beharrean!

Martxoaren 21ean 22 elgoibartarrek King-Koneko geltokian Lezora eramango gaituen autobusa hartu dugu, motxila, es-terila, kanpin gasa... bizkarretik kendu eta bi urtetik behin gure herri aske eta sozia- lista irudikatuko duen Gazte Topagune- rantz abiatu gara eskualdeko beste hain- bat gazterekin batera.

Baina iristear gaudela, lehenengo oz- topoa, kontrola: Guardia Zibilak, metraile- tarekin igo dira autobusera eta identifika- tzeko eskatuta guk ENHA erakutsi diegu, automatikoki 25 pertsona paretaren kon- tra jarri gaituzte. Izan ere, "os puedo llevar a Intxaurrondo porque la ley me ampara".

Ordu eta erdiz haize freskoa hartu eta gero, umorea berreskuratuta, Lezora iritsi gara. Bertan lau egunetan zehar gure etxea izango den kanpina antolatu eta he- rrirantz goaz. Ordutik aurrerakoa ezin da hitzez deskribatu, bizi egin behar da: ikas- leak irakasle bihurturik, kultur gunean ba- lore askatzaileak, Gaztetxe gunea hainbat herritako hamaika borroken erakusleih, sexu askearen jaia, kale animazioa, goize- ro irrati librean irratsaioa, ekitaldia, kon- zertuak...

Azken finean lau egun, hiru gau eta beraz 96 orduz txingor, euri, elur, haize eta beste hainbat oztoporri aurre eginez Eus- kal Herri independente eta sozialista erai- kitzea eta bertan bizitzea lortu dugu.

Azpimarratzekoa da hori guztia ezi- nezkoa izango zela milaka gazteren lanik gabe egin. Ze ostia, onak gara! Eta zuek,

Elgoibarko gazteok, zuen lanaren bitartez, bai barran, segurtasunean, garbiketan, ogia eta esnea salduz... eta zuen parte- hartzearen bitartez, hitzaldietan, mahain- guruetan, ekitaldietan... amets hau egia bihurtzea ahalbideratu duzuenok, *urria balio dozu!* Bide batez, barkamena eska- tu beharra daukagu, turno aldaketa edo eta antolatzaileen estresa agoantatu du- zuenoi.

Eskerrik asko gazteok! Denon artean Independentzia idatzi dugu ilunabarrean, Lezoko teilatuen azpian.

Etorkizunak izen bakarra duelako... Independentzia.

Elgoibarko Gazte Independentistak ☺

Anima zaitzte, zuen zain gaude

Askok jakingo duzue dagoeneko Ei- bar Hierros Anetxe errugbi klubak nesken taldea osatu duela.

Talde bakoitza 15 jokalariz osatuta da- go. Horrez gain, rugbya orain arte mutilen kirola izan dela kontuan hartuta, zailtasun handiak daude taldea sortzeko.

Adin guztietako lagun talde bat elkar- tu eta pasa den irailean hasi ziren entrena- menduak. Momentuz ez dugu ligako par- tidurik jokatzeko aukerarik izan, zoritxarrez taldea osatzeko jendea falta zaigulako.

Arazoi hori dela eta, betidanik errug- bia zer den jakitea izan nahi duzuenoi, bai- na orain arte aukerarik izan ez duzuen guztioi, egiten dizuegu deia.

Astean birritan entrenatzen gara, as- tearteetan 19:00etatik aurrera eta ostegu- netan 18:00etatik aurrera.

Kirola egitea eta giro jatorra gustuko baduzu, animatu eta etorri astearte edo ostegun batean Eibarko Unbeko instala- zioetara edo bestela deitu 618046737 te- lefonora.

Ongietorriak izango zarete. Probatze- arekin ez da ezer galtzen!

Ah! Eta lagunak ekartzeaz ez ahaztu!

Miren Arriola ☺

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Andres
Alberdi

Bilboko harako
alguazil galego haren
metaforaren kontua hiretzat

utziko diat (ausartzen bahaiz). Baina harekin antza duen gertuagoko beste pasadizo batekin natorrik gaur.

Haizea eta bakea bidelagun hartuta, sarri joaten nauk Berasetara aldera. Ordubetexoko ibilaldi atsegina gertatzen zaidak zinez. Tentsio arteriala jaisteko, aukerako parajea eta unea niretzat.

Bestelako tentsiorik ere badiagu, ordea, gizakiok. Eta bakar-kako edo bikotekako tentsio-askatze horren aztarnak bista-bistakoak izaten dituk sarri Berasetara inguruetan: plastiko-poltsatxo deigarri koloretsuak, paperezko muki-zapi likistuak, kondoi erabiliak (batzuk gutxiespen-komplexua sortzeko moduko tamaina super-estrakoak, endemas, txo!)...

“Bakarka edo bikoteka tentsioa askatzearen aztarnak bistakoak izaten dituk Berasetan”

Baduk gune berezi eta harrigarri bat ere: baserriaren leiho bat santu-hobi edo nitxo bihurtzen dik norbaitek, liturgia bat balitz bezala, eta bertan, santuen irudi gisa, porno-aldizkari baten estantapak ageri ohi dituk zintzilik. Toki horrexek harritzen naiek: goiko parteak aldea ziraudik bere santu biluztuekin; lurrean, ordea, nazka eragiterainoko barrua hustearen seinaleko lehen aipaturiko zaborra baino ez.

Ez nauk hasiko, noski, libido-ekintza horiek gaitzesten, bakoitzak baitaki zertan diharduen, baina bistakoa duk kontuak ez duela xarmarik. Berasetako Juanitok jaso behar izaten dituk zikin-keria horiek guztiak. Badiagu errespetua ikasteko beharra.



Anjel
Ugarteburu

Ezagutzen joat, bai, gure herriak daukan paseabide eder hori. Aldapa izatea jok akats bakarra, edadeak gora egin ahala. Ezagunak joatzat, halaber, errepidea basobide izaten hasten den gune hartako plastiko eta paperezko hondakinak; baita Joanitorren kexuak ere. Asko eskatzea ote, bakoitzak sortutako zaborra aldean eramatea? Gaiaren harian, alguazil galegoaren pasadizoa kontatzeko egiten deustak mihingainetik tira. Zuzen samar jatorri, gainera, darabilguan autura, nahiz eta ahoz kontatzeko aproposagoa dan. *Relata refero*, hau dok, entzuna dodan lez kontatzen. Gerra ostetxoan Bilboko parkeren batean harrapatu joazan alguazil hark neska-mutilak narrutan eta, orduko agintari itzal hartaz ziur, udaletxera eramane joazan atxilo. Batzarrean edo plenoan izatea suertatu, kontizua.

“Tentsioak askatzea ondo jak, baina alboan daudenak zipristindu barik”

Merituak irabazteko aukera balliatu nahi eta brastakoan sartu zuan, bikote eta guzti:

- *A estos dos; que los he cogido jodiendo en el parque.*

Kolorea ere aldatu jakok areto bazterrean dagoen alguazil-buruarri, batzarkide guztiak atera begira aho-zabalik geratu direnean.

- *Cómo que jodiendo! Se utiliza una metáfora-*, dinotso belarrira.

- *Eu no se si estaba la metá fora o la metá dentro, pero seguro que estaban jodiendo-*, berean egoskor alguazila.

Korapiloak eta tentsioak askatzea ondo jak, baina alboan daudenak zipristindu barik, ahal bada. Dana dala, uste joat Berasetara alderako jokera duten bezero horiek gusturago entzungo dutela hango zozo eta beleen jarduna, gurea baino. Lan ederra egin joagu, Andres! Orain udaltzainak bialduko jiteuk *Sex-txok* hartara... dena heure erruz.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Eraso sexualak egiten dituztenen kontrako zigorrak gogortzeko eztabaida piztu da.

Zer neurri hartuko zenuke bortxatzaileen aurka?



Gloria Pinilla

45 urte, etxeoandrea

Kartzela-zigorra oso-osorik bete beharko lukete, irten gabe. Ez dute besterik me-rezi. Berriro ere huts bera egiteko aukera dute. Kalera irten gabe egon beharko lukete, kontrolatuta.



Victor de Diego

33 urte, modelogilea

Neurriak aurrez hartu behar dira gaizkia egin aurretik, gero ez duelako soluziorik. Kanean ez dira aske laga behar. Ez dut ulertzen nola lagatzen dituzten kanean, libre.



Mari Carmen Corralero

34 urte, dendaria

Neurriak gogortu behar dira. Batzuei entzun diet hil egin beharko lituzketela, baina hori azkena da. Kartzelatik ez lirateke irten ere egin behar.



Eneritz Aizpitarte

15 urte, ikaslea

Legedia gogortzearen aldekoa naiz bortxatzaileak kalera irten ez daitezen. Bel-durra ematen du askotan entzuten denarekin kanean bakarrik joatea, gauetan bereziki.

10^{eko}
TXIKIAN



NURIA BERGUA

Optika batean egiten du lan

1. Herriko txokorik gustukoena? Eta zatarrena?

Plaza da herriko txokorik gustukoena. Zatarrena, berriz, herriko sarrera.

2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dago soberan?

Umeen parkeak falta zaizkio, eta soberan, zementua eta ladreilua.

3. Azken aldian egindako obretatik, zein gustatu zaizu gehien?

Madalako ingurua oso polita geratu da.

4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Bai, jendea mugitzen da zerbait antolatuta dagoenean. Mugitzen da kultur eskaintzak ikustera joateko. Antzerkiko sarrerak erosteko arazoak egoten dira normalean. Musikako saioetan ere jendea egoten da. Zine zalea naiz eta jende gutxi joaten da zinera.

5. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.

Gabon Zahar feria.

6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Kiroldegia txiki geratu da, igerilekua ere bai. Soinketa eta spinninga egiteko plaza gutxi daude.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez dut uste, baina polita izango litzateke. Ez naiz sekula han bainatu. Txikia nintzenean askoz ere zikinagoa zegoen, pasatzen zen ura gorria, urdina edo berdea izan zitekeen.

8. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?

Erdipurdi. Eibarren egiten dut lan eta hura baino euskaldunagoa da, baina hala eta guztiz ere Elgoibar ez da hain herri euskalduna.

9. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai, gero eta autobus gehiago daude Eibarrera joateko. Trena badago, eta autopista ere gertu dago.

10. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Bai, hemen oso gustura bizi naiz eta ondo bizi liteke. Herrira eginda nago eta ia denetik du. Ume txikiak nituenean faltan botatzen nituen parkeak.



Toletxegaineko apeadero aurrean zikinkeria mordoak egoten da:

“Domeka goizean trenea hartzera joan nintzen Toletxegaineko apeaderora eta harrituta geratu nintzen. Trenaren zain nengoen, jarlekuan eserita eta ezin nuen begien aurrean ikusten nuena sinistu: trenbidea zikinkeriaz beteta zegoen. Botilak, janaria, plastikoak, tabako paketeak... Ez dakit noren lana den trenbidea garbitzea, baina dagokionari eskatu nahi nioke txukun mantentzeko ingurune hori. Kanpotik datorren jende askok ikusten duen lehenengo para-jea da Toletxegain ingurua eta gure herriari buruz asko esaten du. Lotsagarria iruditu zitzaidan. Espero dut gehiagotan ez errepikatzea horrelakorik”.




Errotaberri kaleko baldosak solteak ez dituzte konpon- tzen:

“Errotaberri kaleko baldosak solte daude aspalditik. Eurria egiten duenean baldosa azpian ura pilatzen da eta zapaltzerakoan, hanka guztia bustitzen zaizu, ur mordoak ateratzen delako. Auzo berria den arren, denbora askotxo daramagu arazo honekin eta lehen bailehen konpontzeko eskatu nahiko nuke. Herriko beste leku batzuetan ere gauza bera gertatzen da; Urasandin, esate baterako. Eurri-rik egiten ez duenean ez gara arazo honekin gogoratzen, baina joan zen astean blai eginda gelditu nintzen behin baino gehiagotan”.



Umeak azkarregi ibiltzen dira bizikletan kalean: “Kalean ezin gara lasai ibili eta beldurrez joaten gara askotan. Umeak sekulako abiaduran ibiltzen dira bizikletan eta ez dute inor errespetatzen. Gainera, zeozer esanez gero, gaizki hartzen dute eta burla egiten digute. Kalea ez da

eurentzako bakarrik, nagusioi ere paseatzea gustatzen zaigu eta ezin gara noiz harrapatuko gaituzten beldurrez egon. Gazte horiei eskatu nahi diet, mesedez, kontu handi-agoz ibiltzeko. Egunen batean zerbait gertatuko da eta orduan beranduegi izango da neurriak hartzeko”.



Iñaki Lariz Iriondo
2002ko apirilaren 5ean hil zen

VI.URTEURRENA

*Jaungoikoak gorde zaitzala,
Ama Birjiña Maria,
miserikordiazko Ama,
guztiz miragarria,
konfiantza osoarekin
gaude zugana jarriak.*

*Ama Andrea, zuk badakizu
gu nola bizi geraden,
tentazio ta arriskua
besterik ez dago hemen,
zure alboan har gaitzazula
zeruko glorian. Amen.*



I.URTEURRENA

2007ko apirilaren 5ean hil zen, 80 urte zituela, **Ramon Gorriti Agirre** jaunaren oroimenez lehen urteurreneko meza izango da larunbatean, apirilak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parroki-
an. Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.



Terrorismoaren biktimak gogoratzeko ekitaldia egingo du Udalak apirilaren 26an Plaza Handian

Berazadi, Duran, Arrese, Exposito, Zabaleta eta Aizpiri omenduko dituzte

Udal Plenoak terrorismoaren biktimak gogoratzeko ekitaldia egitea adostu du, Eusko Legebiltzarreko Terrorismoaren Biktimen Bulegoarekin elkarlanean. Ekitaldia apirilaren 26an egingo da, eguerdiko 12:00etan, Plaza Handian. EAJ-PNV, EA, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin onartu dute. Ezker Batua eta Aralar abstenitu egin ziren.

EAEko hamabi herritan egingo dira horrelako ekitaldiak. Joan zen eguaztenean hasi ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta besteak beste, Carmen Araolaza izan zen bertan, biktimen ordezkari moduan; Jaime Arreseren alarguna.

Helburua

Terrorismoaren ondorioz Elgoibarren hildakoak eta kanpoan hil diren elgoibartarrak gogoratzeko da ekimenaren helburu nagusia. Gure herrian sei lagun hil zituzten ETAK eta Komando Autonomoek 1976 eta 1988 artean, eta horien senideak gonbidatuko ditu Udalak ekitaldira: Anjel Berazadi (1976), Anselomo Duran (1978), Jaime Arrese (1980), Jo-



se Exposito (1985), Patxi Zabaleta (1988) eta Sebastian Aizpiri (1988). Azken hau Eibarren hil zuten.

Isaias Carrasco

Udal Plenoak, bestalde, aho batez onartu zuen Isaias Carrascoren hilketa gaitzesteko mozioa. Hilketa Arrasaten izan zen martxoaren 7an, Hauteskunde Orokorrak baino bi egun lehenago. Besteak beste,

edozein herritarren kontrako atentatua euskal gizartearen kontrako atentatua dela adierazten du mozioak, eta gizarte honetan ETA soberan dagoela berretsi zuten.

Azkenik, Ovidio Campello PSE-EE-ko zinegotziak eskerrak eman zizkien hilketa egunean doluminak emateko deitu zioten zinegotziei, tartean, Alfredo Etxeberria alkateari.

Ikur frankistak kentzeko eskatu dio Elgoibar-1936 elkarteak Udalari



Elgoibar-1936 elkarteak herritarren kexa asko jaso ditu azkenaldian, Elgoibarko hainbat eraikuntzatan ikur frankistak daudela esanez. Besteak beste, Iñiguez de Karkizano kalean eta Urasandin aurkitu dituzte Frankoren garaiko ikurrak. Elkarteko kideek Udalari ikur horiek behin betiko kentzeko eskaera egin dio, "Elgoibarren afusilatutako eta errepresaliatu guztien duintasunagatik eta baita ere, orain Elgoibarren bizi garen guztien duintasunagatik". Izan ere, 2007an onartu zen Oroitzapen Historikoaren Legeak ikur frankistak eraikuntzetatik kentzea agintzen du.

Protagonista **Teodosia Iriondo**



Txokolateak txurroekin gosalduz ospatu zuen eguaztenean, apirilak 2, Teodosia Iriondok bere 101. urtebetetzea, San Lazaro egoitzako lagunez inguratuta jaso zuen Udalak emandako lore sorta eta egoitzako kide batek poema eskaini zion. Teodosia San Frantzisko kalean jaiotakoa da. Abarke-tagintzan egiten zuen lan gaztetan eta gero Madrilerara joan zen neska. Hantxe ezagutu zuen bere senarra izango zena. Etxe berean zegoen lanean, ebanista zen. Ezkondu eta Madrilen bizi izan zen senarra hil arte. Gero, alabarekin etorri zen Elgoibarrera.

Zenbakia **363**

Batez beste 363 kilo hondakin bota zuen zaborretara elgoibartar bakoitzak 2007an. Guztira ia lau milioi kilo zabor sortu genituen. Elgoibartar bakoitzak kilo bat hondakin sortzen du eguneko, Debarreneneko eta Gipuzkoako bizilagun bakoitzak sortzen duen batez besteko bera, alegia. Azken urtetan, gutxi izan bada ere, gora egin du lagun bakoitzak sortzen duen hondakin kopuruak. 2000. urtean 0,98 kilo hondakin sortzen zituen, batez beste, Debarreneneko bizilagun bakoitzak. Batez ere, hiri-hondakin solidoek betetzen dute zaborraren poltsa Elgoibarren (%88).

Irudia **“Miski”**

Orain dela hilabete joan zen Gemma Agirregomezkorta Peruko Cuzco herrira, azken kanpainan batu zuen dirua banatzera. Gemmak adierazi duenez, euren zerrandan zeuden ume guztiak eskolaratu egin dituzte eta oso pozik agertu da. Gainera, ezinduentzako San Juan de Dios eskolari laguntzak eman dizkiote; jostailuak, eskola materiala... Urrun egon arren, Gemmak eta Cuzcoko umeek Elgoibar gogoan dute. Apirilaren 27an itzuliko da Gemma, beste kanpaina bati ekiteko.



Altzolarren Dorretxea elkartearen batzarra

Datorren apirilaren 6an, urteko batzar orokorra egingo dute Altzolarren Dorretxea filatelia elkarteeko bazkideek. Lehenengo deialdia 11:30ean izango da eta bigarrena 12:00etan. Besteak beste, zuzendaritza talde berria osatuko da.

Lurrazpiko zabor edukiontzi berriak Upaiz Zaharra kalean

Hiriko hondakin solidoak, ontziak, papera eta beira jasotzeko, 9 lurrazpiko edukiontzi berri jartzeko deialdia kaleratu du Udalak. Upaiz Zaharra kalean, Toletxe eta Txarri-duna Hotelaren artean sortu den kalean, jarriko dituzte edukiontzi berriok. Etxe berriak eraiki dituzten espaloian jarriko dituzte, bi lekutan banatuta.

Argazki ikastaroa

Ongarrik antolatuta, argazki ikastaroa izango da apirilaren 12an eta 13an, goizez eta arratsaldez. Gorka Salmeron argazkilaria izango da irakaslea eta besteak beste, erretratuak eta estudioko argazkiak landuko dira. Ongarriko bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 40 euro. Informazio gehiago: 665 726 907 (Jokin).

Emilia Nogales

Emilia Nogales margolari elgoibartarrak Debegeesak Eibarren daukan lokalean jarri du erakusketa. Apiril guztian egongo da ikusgai.



Gure berbak

Aditza (11): NOR-NORI-NORK oraina

Gaurkuan NOR-NORI-NORK aditzekin jarraituko dogu, 3. pertsona pluralekua debeneekin. Hona zein diran formarik erabilixenak:

- Neutruak: *Liburu bat erosi diuet laguneri; liburu bat erosi diue harek laguneri; liburu bat erosi diogu guk; liburu bat erosi diozu; liburu bat erosi diozue; liburu bat erosi diue gurasuak seme-alaberi.*

- Hikakuak (giz.): *Liburu bat erosi jauet laguneri; hik liburu bat erosi diuek laguneri; liburu bat erosi jauek harek; liburu bat erosi jauagu guk; liburu bat erosi jauek gurasuak semiari.*

- Hikakuak (emak.): *Liburu bat erosi jauenat laguneri; hik liburu bat erosi diuen laguneri; liburu bat erosi jauen harek; liburu bat erosi jauenagu guk; liburu bat erosi jauene gurasuak seme-alaberi.*

Ikusten dogu kasu batzuetan nahastu egiten dirala 3. pertsona singularreko eta pluralekuak, ez dira-eta diegu, diezu erako aditzak erabiltzen, -e-dunak. Horren ordez, *diogu, diozu* era-kuak erabiltzen dira pluraleko pertsonetarako ere.

Bigarren pertsona pluralaren formetan, bokal artian gertatzen da pertsona horri dagokion -g- kontsonantia (*jauagu, diogu...*), eta oso normala da -g- hori ahoskeran leuntzia eta are desagertzia ere: *jauau, diou...*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1963

Juanito Gorostizak laga digu 1963. urteko argazkia hau, Mugerza Kros Internazionala egin zen lehenengo urtekoa, hain zuzen ere. Aurretik ere Mugerza Kro-sa egiten zen Elgoibarren, baina 1963an etorri ziren estreinakoz atleta internazionalak, eta eurak izan ziren irabazleak. Garai hartan, orde, sariak oso bestelakoak ziren: garbigailuak, irriatiak edota telebistak ematen ziren opari. Erretratu hau Ego-Toki elkartearen aterata dago. Lasterketa amaitu ondoren, hamarretakoa egin zuten korrikalariak Mugerza Kroseko antolatzaileekin.

Joan zen domekan Munduko Kros txapelketa jokatu zen Edinburgon eta ego-kia iruditu zaigu argazki hau argitaratzea. Gogora dezagun zeintzuk diren erretratu protagonista:

Zutik: Txomin Iribarren, Bernardo Ezenarro, Anjel Iriondo, Jose Bedayo (+), Juan Jose Astigarraga (+).

Eserita: Mamo Wolde irabazlea (+), afrikarren delegatua, Jose Gurrutxaga (Espainiako txapelduna beteranoetan), Marian (2. sailkatua), Juanito Galarraga.



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen

Haur eta gaztetxoentzako
proiektuetan lan egiteko

**KOORDINATZAILEA
BEHAR DA**

- ▶ Astean 35 orduko lan-dedikazioa.
- ▶ Lanean berehala hasteko (urtebeteko kontratua).
- ▶ Aisialdian esperientzia eta harremanetarako dohainak izatea eskatzen dugu.

Informazio gehiago: E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com
Tel.: 943 74 16 26 (Nerea)

Curriculumak entregatzeko: nerea@elgoibarkoizarra.com
Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen -Ubitarte 4, beheko - 20870 ELGOIBAR
Azken eguna: **Apirilak 18**

45 erretratu Elgoibarko Izarrari begiratzeko



45 urte eta 45 erretratu. 45 erretratu aukeratu ditugu Elgoibarko Izarrak 45 urteotan egin duenari nolabait begiratzeko. Ez duzue egindako guztia ikusiko, ezta gutxiagorik ere, baina ideia bat jasotzeko balekoa izan daiteke. Oroitzapenak dantzan jartzeko erretratuak dira hasierakoak; 45 urte ez direla alferrik pasa konturatzeko. Baina erretratu zaharren aldamenean berriagoak ere ikusiko dituzue, eta, denen artean, 45 urteko historiaren laburpen txiki bat egingo digute.

Munduari buelta emateko intentzioarekin hasi ziren lanean 1963ko martxoan Felix, Jesus, Sabin eta konpainia. 45 urte pasa dira eta euskaldunok mundu honetan gure tokitoxa izateko lanean segitzen dugu. Ilusioz, gero eta hurrerago gauden esperantzarekin

*Plaza Txikian perretxiko bat topatzea
ume bat euskaraz berbetan entzutea baino errazagoa zenean
sortu zen Elgoibarko Izarra.*

*Intuizioz,
bihotzak eraginda.*

Erderiak ez itotzeko.

1963ko martxoa zen.



*Felix Etxeberriak eta Jesus Larrañagak, Sabin Osororen laguntzarekin, sortu zuten **Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea** 1963ko martxoan.*



*Itziar Ajuria izan zen **Ikastolako** estreinako andereñoa. Bere atzetik etorri ziren Arantxa, Nekane, Antton, Txomin eta gainontzekoak.*



1962ko maiatzean ireki zen Ikastolako lehen gela 29 umerekin, baina 1970ko abendura arte ez zuen baimen ofizialik jaso.



*1960an hasi ziren **mendi irteerak** antolatzen Elgoibarren. "Mendira igotzia askatasunarekin amets egiteko modu bat zan".*



Euskal giroa piztea zen mendi irteeren helburu nagusia, eta kalean egin ezin zena mendian egiten zuten.



1973an hasi ziren Ikastolako umeak **Aubixara** igotzen. Helburua, Ikastolatik kanpo ere umeei euskaraz jarduteko aukera eskaintzea zen.



Makina bat ume pasa da harrez gero Aubixatik. Ikastolako umeak bakarrik hasieran, eta ikastetxe guztietakoak nahasian gerora.



1964an 34 neska-mutilek osatutako estreinako **dantza taldea** aurkeztu zuten Elgoibarko Izarrak. Aurrerago 400 ikasle izatera ere iritsi ziren.



Elgoibarren eta inguruko herrietan ospatzen ziren Euskal Jaietan dantzan egiten zuten. 25 urtez izan zuen Elkarteak bere dantza taldea.



Antonio Azpiazu zenaren etxean zabaldu zuen Elgoibarko Izarrak **txistu eskola** 1965ean. Seme-alabak eta ingurukoak izan ziren lehen ikasleak.



80 ikasle ere izan zituen Antoniok. Euskal Jaietan, San Anton jaietan eta Santa Zezilia egunean jotzen zuten txistua, besteak beste.



30 ume inguru animatzen ziren urtero-urtero Elgoibarko Izarran **baleta** ikastera. Neskak gehiago izan arren, mutilak ere baziren taldean.



Errusian egon eta Eibarren bizi zen emakume batek ematen zituen bailetako klaseak, eta luzaroan mantendu zituzten.



1966an hasi zen Elkarte San Anton egunean **Odeoko jaialdia** antolatzen. Elkarteko eskoletan zebiltzan ume eta gaztetxoek jaialdia izan zen.



Euskal dantzak, txistulariak, baleta, antzerkia, kantuak, musika,... Denetik izaten zen Odeoian. Eta hauei begira, 1.000 lagunetik gora.



Elgoibarko Izarrak 1976an hartu zuen **danborrada** antolatzeko ardurara. Danborradako atalik ikusgarriena karrozak izaten ziren.



Danborradetako karrozak gizartearen zeuden arazo eta kezak azalertzeko aprobetxatzen ziren: euskal unibertsitatea, euskarazko telebista, ...



1981ean jarri zuen martxan **bertso-escuela** Anjel Ugarteburuk. 1992an, berriz, German Meabe bertsolariak hartu zuen bertso-eskolaren ardura.



Ume eta gaztetxo asko pasa da Elkarteko bertso-eskolatik, eta batzuek jende aurrean bat batean kantatzeko aukerarik ere izan dute.



Elgoibarko Izarraren inizatibaz, 1987an jarri zen martxan **Udaleko Euskara Batzordea**.



92tik etengabekoa izan da Udalaren eta Elkartearen arteko lankidetzaren. Urtero, gainera, hitzarmen ekonomikoa sinatzen dugu bi aldeok.



1992ko abenduan ikusi zuen argia **elgoiBARREN** astekariak. Jende askok parte hartu zuen bigarren etapako lehen proiektuan.



Hasieran txikia zena asko aldatu eta handitu da 15 urteotan; eta, azken aldian, kolorez jantzita sartzen da astero 4.650 etxetan.



1995ean aurkeztu genuen **Atxutxiamaika Aisialdi Taldea**. Elgoibarko umeak, jolasa eta euskara eskutik helduta ikusi nahi genituen.



2007an, adibidez, ia 800 aisialdi ordu antolatu ditugu eta 3.000 haurrek parte hartu dute. Olentzerok ere urterro egiten digu bisita.



GAZ-T aisialdi taldeak, berriz, 1998an ikusi zuen argia. Aisialdia urteen kontua ez delako hasi ginen lanean 12 eta 16 urte arteko gaztetxoekin.



Hamaika irteera eta udaleku antolatu dugu GAZ-T taldean, baina 2007ko abenduan taldea desagitea erabaki genuen bide berriak lantzeko.



Ehunka **kultur jarduera** antolatu du Elgoibarko Izarrak 45 urteotan. Gabonetako bertso jaialdiak, adibidez, 25 urte beteko ditu aurten.



Zenbat kulturgile pasa ote da Elgoibartik Elkartearen eskutik! Batzuk gaur baino ezezagunagoak zirenean etorri ziren gure herrira.



Gurean Bai-Hitzarmena 1996ko urtarrilean aurkeztu genuen. 51 elkarte eta entitatek esan zioten baietz euskara gehiago egiteko konpromisoari.



Elkarteen ondoren, 2002ko urtarrilean, 131 merkatarik esan zuten Gurean Bai. 2007an, berriz, 42 ostalarik sinatu zuten hitzarmena.



2000. urteko urtarrilean eman genion hasiera **Arigera** proiektuari. Helburua Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzea indartzea zen.



Besteak beste, gure esker ona eta errekonozimendua azaldu genien euskara ikasten jardun duten herritarrei.



2000ko apirilean zabaldu ziren **Toletxe** tabernako ateak. Ilusio handiarekin prestatutako proiektua izan zen, baina huts egin genuen.



Toletxek taberna bat baino gehiago izan nahi zuen. Kontzertuak eta diapositiba-emanaldiak izan ziren, batez ere, jarduera garrantzitsuenak.



Kiribil eta bere lagunak 2004ko martxoan irten ziren estreinakoz Plaza Handira gure txikienekin jolastu eta kantatzera.



Familetan eragiteko egitasmo honek 16 saio eskaintzen ditu urtean, eta, batzaz beste, 100 ume eta gurasok parte hartzen dute bakoitzean.



*12 eta 14 urteko gaztetxoek koadriletan euskaraz egiteko ohitura indartu nahi duen proiektua aurkeztu genuen 2006ko urrian: **Kuadrillategi**.*




2007an bi koadrilatako 24 gaztetxok parte hartu bazuten, bigarren urtean 5 koadrilatako 79 gaztetxok eman dute izena Kuadrillategin.

*45 urte eta gero, zorionez,
Plaza Txikian ume gehienek euskaraz dihardute.*

*Ez diogu munduari buelta eman,
bana ilusioz segitzen dugu
gure mundutxoa euskalduntzen.*

Itomenetik arnasa hartzera pasa gara.

2008ko apirilean gaude.







**JARRI NAHI AL DUZU
ZURE ERRETRATUA?**

Elkartea sortu eta bi urtera
1.400 bazkide bildu ziren.
Elgoibartarron euskaldun izateko nahiak
eragindako erantzun kolektiboa izan zen.

60ko hamarkadan egin zuten moduan,
bazkide izateko gonbitea
luzatu nahi dizuegu.

**ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDE IZAN
NAHI BADUZU:**

- 1. DEITU** 943 74 16 26 telefonora
- 2. IDATZI** imanol@elgoibarkoizarra.com e-postara
- 3. ETORRI** Ubitarte 4an daukagun lokalera.



alire estetika

Eskaintza!!!

**Apirilean Fotodepilazioa!
Izterondo eta besapeak.**

99 euro saioko!!

Ordutegia

Astelehenetik Ostiralera

09:30 12:30 / 15:00 - 20:00

Asteazkena: 09:30 - 19:00

Larunbata: 10:00 - 13:00

**Upaiz zaharra, 1 behea - Tel.: 943 531 636
Elgoibar**

TRATAMENTUAK: Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitis aurkakoak, erreduktoreak) - Ongizate tratamenduak - Masajeak - Depilazio laserra, elektrikoa, argizarizkoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Hantketako estetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetikoak

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

Besteak dira lotsatiak ala zu zara lotsagabea?

Berdin zait.

Zertan zara lotsagabea?

Lotsagabea baino, ausarta naiz.

Liderra ere bai?

Hori ez. Gauza barregarriak egitea gustatzen zait.

Adibidez?

Lagun bati gustatzen zaion mutilari adarra jo.

Zure laguna da oraindik?

Bai.

Mutilengan fijatzen zara?

Bai, baina gutxi. Futbolariengan fijatzen naiz. Torres atsegin dut.

Norbaiti sinadura eskatu diozu?

Elgoibarko bati bakarrik. Markel Bergarari.

Ba al dakizu "Chiqui chiqui" dantzatzen?

Ez, oso kutrea da abestia. Ez dakit nola aukeratu duten Eurovisonerako.

Mutilei hitz ederrak esaten dizkiezu?

Ez.

Zertan fijatzen zara mutil bati begiratzean?

Aurpegian, nolakoa den.

Ametsen bat?

Dirua edukitzea. Pisu bat izatea.

Non?

Parisen edo luxuzko leku batean.

Printzesa baten pare bizi nahi duzu?

Bai, printze batekin.

Begi urdinekoa?

Berdin zait, guapoa den bitartean.

Eta futbolaria...

Hobeto.



t
X
I
K
I
B
A
R
R
E
N

Euskara

Kiribilka

Gaur, apirilak 4, hasiko da Kiribilka programa Plaza Handian arratsaldeko 17:30ean. Bitik sei urtera arteko haurrentzako programa da, eta helburua euskara bultzatzea da familien artean. Aurten pertsonaia mitologikoek babestuko dute Kiribil barraskiloa.



IZANGO ZENUKE ROBOT BAT LAGUN?

Alberto Liebana

7 urte

Bai, agindu egingo nuke, eta etxeko lanak ere zintzo-zintzo egingo lituzke.



Joan Rodriguez

8 urte

Bai, robot handia aukeratu nuke. Anai-arrebekin ere jolastea atsegin dut.



Jokin Arroyo

7 urte

Bai. Doraemon baino handiagoa izango lituzteke, baina hura baino zintzoagoa.



Julieta Ferrino

8 urte

Bai, baina hasieran probatzeko bakarrik izango nuke, eta gero, jolasteko.



Pablo Luis

8 urte

Bai, baina robotek ez dute bihotzik. Horregatik etxeko lanak egiteko erabiliko nuke.



Iman Addou

7 urte

Bai, robot neska aukeratu nuke, eta futboleko jokatzen irakatsiko nioke.



Sariketa

Kosmodisea 2007-2008

Kosmodisea Gipuzkoako Foru Aldundiaren berrikuntzarako eta jakintzaren gizartearen ekimena da. Helburua informazioaren eta komunikazioaren teknologia aztertzea da lan-taldean. Sariketa horretan, Elgoibar Ikastolak Fisisistemari dagokion kategorian (Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailak) lortu du lehen postua. Maila horretan parte hartu duten taldeek energiaren erabilerarekin lotutako audio muntaia egin behar zuten. Basakaitz Herri Ikastetxea (Aizarnazabal), Elgoibar Ikastola (Elgoibar), San Vicente de Paul (Irun), La Salle Berrozpe (Andoain) eta Nazaret Zentroa (Donostia) ikastetxeek irabazi dute Kosmodisea 2007-2008ko Fono Planeta.



M^a TERESA UNZUETA

Margolaria



Hernanin jaio arren, bihotzez elgoibartarra da Maria Teresa Unzueta. Sei urterekin etorri zen gure herrira eta urte mordoxka batean bizi izan zen hemen bere amamarekin. Orain Donostian bizi da. 82 urte ditu, gure herrian “Maria Teresa Hernani” esaten dioten emakume honek. Txiki-txikitatik gustatu zaio pintura eta, luzaroan margotu gabe egon bazen ere, senarra hil zenean berriro ekin zion bere zaletasunari. Gaurtik hasita, apirilaren 20ra arte bere lanak ikusteko aukera izango da Kultur Etzeko Erakusketa gelan.

“Koadroak margotzerakoan sentitzen dudana transmititzeko modua da erakusketa”

Noiz eta nola hasi zinen margotzen?

Txiki-txikitatik gustatu izan zait. Bernardo Ezenarrokekin hasi nintzen margotzen gerra aurretik. Nire amamaren etxean Murilloren *Inmaculada* koadroa zegoen; koadro handi bat zen. Kolore gutxi zeukala iruditzen zitzaidan eta akuarelekin kolorea eman nion emakume haren aurpegiari. Nire lehenengo lana izan zen. Izugarri gustatu zitzaidan emaitza, baina handik denbora batera, berriz begiratu eta aurpegia zikindu besterik ez niola egin konturatu nintzen. Garbitu eta zegoen moduan laga nuen koadroa.

Non lortzen duzu inspirazioa?

Edozein lekutan eta edozein momentutan. Bost seme-alaba ditut eta txikiak zirenean ez neukan margotzeko denbora askorik. Hala ere, argazki zaharrak hartu eta kolorea ematen nien. Orain argazki kamerarekin ibiltzen naiz txoko guztiei erretratuak ateratzen. Denak balio du inspiratzeko.

Zer margotzen duzu?

Gizakia margotzea izugarri gustatzen zait. Zaila da, baina nahiko ondo ateratzen zaidala uste dut. Paisaiak eta irudi abstraktoak ere egiten ditut. Kolore laranja, horia eta urdina asko erabiltzen ditut.

Zer egiten duzu koadroekin?

Batzuk oparitu egiten ditut, eta beste batzuk saldu, baina badaude niretzako gorde nahi ditudan koadroak ere. Nire etxean koadro abstrakto handi bat neukan eta lagun batek eskatu egin zidan, baina ez nion eman. Koadro berdina margotzeko eskatu zidan eta

baietz esan nion, baina oso zaila da bi koadro berdin margotzea. Ez zitzaidan gaizki irten, baina ez zen berdina. Ez nekien zein zegoen hobeto, lagunari ere biak gustatzen zitzaizkion eta azkenean txandak egiten ditugu: denboraldi batean berak dauka orijinala eta gero aldatu egiten dugu. Gustura gaude akordioarekin. Nire bizitzan gustuko ez ditudan opari asko jasan behar izan ditut eta, badaezpada, ez ditut koadro asko oparitzen, nahi duenak eskatu egin behar dit. Nire errainak eskatu zidan lehenengo koadroa, eta bost pezetatan salduko niola esan nion, koadro bat saldu nuela esateko behintzat.

Zer da pintura zuretzako?

Arazo guztiak ahazten laguntzen dit, nire zaletasuna eta beharra da. Gaizki sentitzen naizenean margotu egiten dut. Astean birritan joaten naiz klasera eta izugarri laguntzen dit. Senarrak pinturarako estutxe bat oparitu zidan margo eta pintzelekin. Urte askoan baztertuta izan nuen, umeak hazi behar nituelako, baina senarra hil zenean, seme alabek estutxe bera oparitu zidaten margo eta pintzel berriekin. Orain ezin dut estutxea baztertu.

Zer ikusiko dugu erakusketan?

Hogeita bost koadro inguru ekarriko ditut. Koadroak margotzerakoan sentitzen dudana transmititzeko modua da erakusketa. Elgoibarren jarriko dudan bigarren erakusketa da hau eta esanahi berezia dauka niretzat. Aurreko aldian ere txikitako lagun mordoa etorri ziren eta oso polita izan zen.

Oihana Alkorta omentzeko itzuliko da Arima Beltza taldea bihar, zapatua

Orion egingo den kontzertuan hiru abesti eskainiko ditu

Oihana Alkorta (Getaria, 1977-Orio, 2007) musikari eta abeslariak lotura berezia izan zuen Elgoibarrekin. Arima Beltza taldeko kideek ere harekin kolaboratu izan zuten, iaz A-8 autopistan istripuz bizia galdu zuen arte. Bihar, Orioko kiroldegian omenaldi-kontzertua egingo diote, eta 2006an desagindako blues-rock taldea taula gainera itzuliko da. Itzulera puntuala izango da, sentimenduek bultzatutakoa.

Abeslari sentiberatsua

Benito Lertxundik Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin ateratako diskoan ere parte hartu zuen Oihana Alkortak eta hark ere pertsona oso sentibera izan zela adierazi du. Arima Beltzak azken diskoko (*Mundurako ateak*) hiru abesti joko ditu 19:00etan hasiko den emanaldian: *Desirak eta gezurrak*, *Gaueko txanda* eta *Nun zaude*. Gainera, Araujo eta Badiola taldekideek bajua eta kitarra joko dituzte *Aire-*



an idazten dizkizut abestian, beraiek ere parte hartu baitzuten, Oihana Alkortarekin batera, Kilometroak 2004rako grabatu zen diskoan. Hirurei, beste elgoibartar batek, Humberto Esnaola "Muxi-k" lagundu zien moldaketekin.

Domeka gaueko zine emanaldia kenduko dute asteburu honetatik aurrera Herriko Antzokian



Asteburu honetatik aurrera 16:30ean eta 19:00etan izango dira Herriko Antzokiko zine emanaldiak domeketan. 22:15ekoa, berriz, kendu egin dute jende gutxi joaten baitzen. Elgoibarren, gainontzeko herrietan bezala, zineko ikusleak nabarmen jaitsi dira azken urteotan.

"Munstroak akatuz" umeentzako antzezlanaren apirilaren 27an

Debabarreneko eskolarteko antzerki erakusketaren baitan eskainiko du Teatro Mutante konpainiak apirilaren 27an *Munstroak akatuz* antzezlanaren arratsaldeko 16:30ean. *Hiri basatia* ikuskizunaren ondoren, talde bilbotarrak haurrentzako lan berria aurkeztuko du. Bullying delakoa abiapuntu hartuta, bizitzaren borrokari buruz hitz egitea izan da Teatro Mutanteren asmoa. Antzerki osoak fartsa kutsua du eta ikusleak protagonistarekin erraz identifikatuko direla ziur daude. Sarrerak leihatilan egongo dira salgai.

Akordeoi topaketa izango da domeka honetan

Akordeoi topaketak 2003an hasi ziren, eta Beran, Barañainen, Tolosan, Lezon eta Mutrikun egin izan dira orain arte. Kalejira 13:00etan hasiko da eta kontzertua Olaizaga kiroldegian egingo da. *Beti Elgoibar*, *Charleston time*, *Euskal musikaren gorespena* edo *Ezpatia joko nagusia* izango dira programako partitura batzuk.

Helduentzako oinarrizko tornu ikastaroa

Apirilaren 7tik maiatzaren 8ra bitartean iraungo du Lurki zeramikak tailerrak antolatutako tornu ikastaroak, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Izenematea Zeramik Eskolan (Aita Agirre plazan), egin beharko da edo 677 466 344 telefonora deituta.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen

**BAZKIDEEN URTEKO
BATZAR OROKORRA**

Egitasmoa:

- 1.- Lehendakariaren agurra
- 2.- 2007ko MEMORIA
- 3.- 2008ko HELBURUAK eta AURRERKONTUAK.
- 4.- Lehendakari berriaren aurkezpena.
- 5.- Galdera-erantzunak

EGUNA: Apirilak 14, astelehena.

ORDUA: 19:00.

TOKIA: Kultur Etxeko hitzaldi gela.

Elkarteko bazkide guztiok gonbidatuta
zaudete Batzar Orokorrera.
Azalduko zareten esperantzarekin,
Zuzendaritza Batzordea

Elgoibarko bi taldek eta Imanol Santosek bakarka parte hartu zuten Pyrenea triatloi proban

Martxoaren 30ean lehiatu ziren Frantziako Pirinioetan

Pyrenea triatloi proba Frantziako Pirinioetan jokatu zen pasa den martxoaren 30ean. Kirolariek lehenik antxintxika, ondoren bizikletan eta bukatzeko mendi eskiz jardun behar izan zuten. Proba horrek badu berezitasun bat: kirolariek bakarka ez ezik, taldeka ere egin dezakete ibilbidea eta horrek oso giro herrikoa ematen dio, gazte, nagusi, emakume eta gizonak elkarren kontra lehiatzen diren probari.

Aurten ere, aurreko urteetako ohiturari jarraituz, elgoibartar batzuek parte hartu zuten. Imanol Santos izan zen bakarka ausartu zen bakarra, eta taldeka bi taldek amaitu zuten: Jendetxa 1 (Ibon Gabilondo lasterka, Ion Urbietza bizikletan eta Gaizka Astorkiza eskian), eta Jendetxa 2 (Abel



Arriaga lasterka, bizikletan Aitor Romera eta eskian Arkaitz Irureta). Elgoibartar morda hurbildu zen lehiakideak animatzera.

Ziur datorren urtean ere euren marka pertsonala hobetzeko asmoarekin bueltatuko direla.

ZOKKETA

BI LAGUNENTZAKO BIDAIA CANARIETARA ASTEBETERAKO

Zozketa eguna: 2008/12/22 - (notario aurreko zozketa)



KANPAINA: 2008/04/01etik 2008/12/19ra



correduría de seguros
URNOBITZA S.L.
Pedro Migel Urzuzuno kalea, 31 behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)




MS - 010

AURREKONTUA ESKATZEAGATIK BAKARRIK ZURE ETXE/AUTO ASEGURURAKO

Umeentzako jolas parkeak jarriko ditu Udalak Leku Ederren eta Mintxetan

Kirol askotan jarduteko pistak ekainerako egokituko dituzte



Patinatzeko pistaren arrakasta ikusita, Udalak balioanitzeko hiru jolas pista eskuratu ditu. Ekipamendu berri horiek bereziki sei eta hamalau urte bitarteko gaztetxoentzako izango dira. Futboleant, eskubaloian, saskibaloian, tenisean, boleibolean eta beste hainbat kirol eta jolasetan aritzeko aukera ematen du hesitutako pista balioanitzak. Leku Ederren futbitoan jokatzeke aukera egongo da eta lekua egokitzeko lanak egin beharko dituzte. Mintxetan, berriz,

aire libreko igerilekuan eta aparkalekuan jarriko dituzte.

100.000 euroko aurrekontua

Ekainaren 15erako prest egongo dira, hau da, igerileku denboraldirako. Udalak 100.000 eurotako inbertsioa egin du. Alkateak argitu nahi izan du ekipamendu berriek ez dutela herriko kirol eskaintza handitzeko helbururik, "umeen jolas eta aisialdi aukerak handitzea baizik".



Mikel Leonek Xakeko Eire-Bankoa txapelketa irabazi du Urretxun

Mikel Leon Lerun xake taldeko kidea nagusitu zen Urretxuko Eire-Bankoa lehiaketan. Finalean Iñaki Oses urretxuarra izan zuen aurkari. 200 euro, garaikurra eta txapela eraman zituen etxera. "Ezustekoa eman dut, beste faborito batzuk zeudelako", adierazi du Leonek. Urtarrilean hasi zuten lehiaketa 50 xake jokalariek. Finalerdietan txapelketako partidarik onena jokatu zuen Leonek.

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5

16:00 Elgoibar – Tolosa C.F. (jubenilak)

Domeka, 6

10:30 Elgoibar – Ordizia (alebinak)

ESKU PILOTA

Barbakua, 4

22:00 Lagunak – Eskoriatza (finalerdia)

Eskubaloi campusa uztailen

Uztailaren 1etik 11ra, eskubaloi campus irekia egingo da Olaizaga kiroldegian bi orduko hiru entrenamendurekin. Eskaintza Elgoibar, Mendara eta Debako 1995, 1996 eta 1997an jaiotako neska-mutilentzako da. Izena emateko epea apirilaren 15ean bukatuko da. Astelehen eta martitzenetan, 16:30etik 18:00etara, eman daiteke izena kiroldegian.

Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia

Diego Garcaren omenezko Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian, herriko hiru neska eta hamabi mutilek amaitu zuten proba. Zenbaitek bertan behera laga zuen lasterketa eta beste batzuk txipik gabe ateraziren.

NESKAK

10 Maider Lehr	1:34:19
22 Ainhoa Lendinez	1:43:04
31 Mari Carmen Isasti	1:49:01

MUTILAK

68 Unai Narbaiza	1:21:07
163 David Conde	1:26:02
164 Iñigo Salegi	1:26:02
196 Alberto Garate	1:27:22
392 Asier Arrieta	1:34:36
419 Aitor Osoro	1:36:10
494 Kerman Moreno	1:38:39
647 Javi Fernandez	1:43:04
656 Modesto Cid	1:43:51
698 Juanjo Gurrutxaga	1:46:03
721 Javier Oñederra	1:46:37
744 Javier Agirrebeña	1:47:51
773 Thomas Gonzalez	1:49:35

LANA

ESKAERA

- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ 648 210 838
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ 616 230 814
- Neska, edozein lan egiteko prest. Egun osoa ala erdia. ☎ 618 177 283
- Ingelesko partikularra ematen da: ahozkoa eta Business English. ☎ 696 964 069
- Ingelesko partikularra ematen zaie helduei. Maila guztiak. ☎ 606 733 850
- Emakumea, lanerako prest: nagusiak zein umeak zaindu, garbiketa lanak... ☎ 696 284 351
- Partikularra ematen da Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. ☎ 943 53 10 54
- Mutil arduratsua, zerbitzari lanetarako prest. ☎ 626 590 632
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzuetan zaintzeko prest. Josteko lanak ere egiten ditut. ☎ 943 74 22 01 / 652 715 908
- Neska, sukaldari, zerbitzari... lanetarako prest ☎ 649 694 790
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu... Goizez ☎ 699 690 190
- Neska gaztea, edozein lan egiteko prest. ☎ 677 300 105
- Frantses partikularrak ematen dira. ☎ 664 126 273
- Bi irakasle, partikularrak emateko prest, LH, DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. ☎ 653 717 972
- Mutil gaztea, banatzaile lanetarako prest. Badaki euskaraz. ☎ 620 049 420
- Mutila, lan egiteko prest. ☎ 680 250 527 / 943 53 15 45
- Mutila, nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile aritzeko edo garbitzaile izateko prest. ☎ 608 400 998

ESKAITZA

- Sukaldari laguntzailea behar da lehenbailehen. Esperientzia beharrezkoa da. Urtebeteko kontratua. ☎ 943 74 87 78

- Sukaldari laguntzailea eta jantoki eta barrarako zerbitzaria behar dira. ☎ 688 623 668 / 688 623 667
- Zerbitzaria behar da. ☎ 943 12 12 62
- Hezkuntza Berezia egin duen edo egiten ari den laguna behar da umea zaintzeko uztailako goizetan. ☎ 615 787 118
- Mutila behar da igeltseritza lanerako. ☎ 605 705 204
- Neska arduratsua behar da umeak zaintzeko. ☎ 943 74 29 66
- Margolari autonomia behar da. Gu-txienez bi urteko esperientzia. ☎ 690 005 800

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Urasandin pisua salgai. Hiru logela bi-koitzak, bainugela, sukaldia eta egongela. Horma-armairua, balkoia eta galeria (estalitako balkoia) ere badu. Oso eguzkitsua. Komuna eta bainugela. ☎ 626 371 369

GARAJEAK

- Garajea eta trasteroa alokatzen ditut herriko plazan. ☎ 657 779 837 (Igor)
- San Roke kalean, Aterpe azpian, garajea alokairuan. ☎ 943 741 436
- 16 m² garaje itxia alokairuan. San Roke kaleko 10ean, kiroldegia atzean. ☎ 943 740 118

MOTORRA

- Renault Espace salgai. 7 eserterku. 2.200 diesela. ☎ 695 730 442
- Opel Tigra salgai. 80.000 km. Egoera onean. ☎ 646 742 465
- Ford Focus Berlina salgai, TDI, 2001. urtekoa. ☎ 630 151 231
- Opel Vectra salgai. Ondo zainduta. ☎ 656 793 967
- Opel Monterrey 4x4 salgai. Hiru ate atzean, engantxea erremolkerako. Motorra 3.100 diesela oso egoera onean. Baserrirako edo ehiztariarentzat aproposa. ☎ 646 711 421

BESTELAKOAK

- Karabana salgai. 7 metrokoa. Kale-fakzio eta berogailua, komuna, dutxa eta sukalde osoa kanpoan. Mutrikuko Santa Elena kanporean jarrita. ☎ 652 750 361
- Ametsa kafetegia alokairuan edo salgai, Elgoibarren. ☎ 686 608 224
- Baratza konpartitu nahi dut. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, simaurra eta lan egiteko erremintak. ☎ 655 723 678 / 943 74 39 19
- Salgai AMC izena duten sukaldeko batera edo lapikoak. Pieza solteak ere bai. ☎ 639 390 808
- Pisu txikia behar da Elgoibarren alokatzeko. ☎ 699 637 269
- Erdigunean dagoen taberna alokatzen da jabearen erretiroa dela-eta. Terrazza du. ☎ 943 74 28 97
- Balkoi batetik erori da kamiseta polar gorri-laranja. ☎ 943 74 18 34
- Pisu txiki baten bila gabiltza alokairuan hartzeko Elgoibarren. ☎ 699 637 269

ABISUAK

- Gizonezko erlojua topatu dut. Hilaren 28an, arratsaldean, Erretxindi kalean. ☎ 943 74 16 64
- Nissan autoko giltzak topatu ditut. Hirurukutzetan. ☎ 670 039 572
- Urre zurizko ezkon eraztuna aurkitu dut Pedro Mugaruzan. ☎ 637 532 824
- Antiojoak galdu dira martxoaren 4ean geltoki bidean. Eskertuko da. ☎ 943 74 13 26
- Altzariak, etxetresna elektrikoak, oherako erropa, kortinak eta alfonbra handi eta txikiak behar dira. ☎ 676 444 171
- Mutil batek PSPa galdu du Madalako Eroskitik Gaztelekurako bidean. Eskertuko da. ☎ 656 766 563 / 688 663 032



BEKAK

BRITAINIA HANDIA

La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako 20 beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakas-kuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Epea: ekainaren 13a.

EKINTZAK

GAZTE OPORRALDIK

Gipuzkoako Foru Aldundia. 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat antolatutako programa. Plazak zozketa bidez banatuko dira maiatzaren 8an. Izena emateko epea: Apirilaren 17tik 25era Gazte Oporraldien bulegoan (Gaztegunea. Anoeta pasealekua 28) edo Gazte Informazioko Bulegoetan.

IKASTAROAK

SOROSPENA

DYA Gipuzkoa. 2008ko apirilaren 14tik maiatzaren 6ra bitarte. Astelehenerdik ostiralera 19:30etatik 21:30etara izango da. Azpeitian. Unibertsitateko bi kreditu eskaintzen ditu. Epea: Apirilaren 13a

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Astelehenerdik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.



Clínica Oftalmológica

RECALDE

Oftalmologi Klinika


Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



• Zorionak, **Nayala**, 4 urte egingo dituzulako. Zure familiaren eta bereziki anaia Markelen partez.



• Zorionak, **Einer**, urtetxo bat egin duzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Izaskun Aierdi**, domekan urteak egingo dituzulako. Santi, Garazi eta Iruneren partez.



• Zorionak, **Nahia**, bi urte egingo dituzulako. Aita, ama eta familiaren partez.



• Zorionak, **Malena**, zure seigarren urtebetetzean. Zure anaia Jon eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Unax**, 4 urte egin dituzu-eta. Familia guztiaren eta bereziki zure anaia Xikerren partez.



• Zorionak, **Oihan**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Roke**, 5 urte egin egingo dituzulako bihar. Etxeko guztien partez muxu handi bat.



• Zorionak, **amama Teo**, 101 urte egin dituzulako. Bereziki Alberto, Maialen eta Iñigoren partez.



• Zorionak, **Eneko**, 8 urte egin dituzulako. Etxekoan partez.




• Zorionak, **Asier**, 6 urte egin zenituelako. Etxeko denen eta bereziki Maialanen partez.



• Zorionak, **Ane eta Irati**, inauteriko dantzak bukaturik, kimu berriak loraturik udaberriko neskek pozik.



• Zorionak, **amama Begoña eta Ainhoa** astelehenean, apirilak 7, zuen urtebetetzea izango delako. Muxu bana denon partez.



• Zorionak, **Iker eta Joseba**, martxoaren 26an 10 urte egin zenituztelako. Nayala eta Markelen partez.

Burdindegia Etxea

MIG

Tel.: 943 740 831
Saltoki berria: Trenbide kalea 9

Giltzak - Etxeko menajea

Lanbroa

Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak

Asteleheneetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

OKINDEGIA

6 igandea **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 4 Zabaleta
- 5 Etxeberria (*Errosario*)
- 6 Etxeberria (*Errosario*)
- 7 Ibañez
- 8 Fernandez
- 9 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 10 Fernandez
- 11 Yudego

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.neten

4 barixakua

17:00 Ordenagailu tailerra
Gaztelekuan.

17:00 Sukaldaritza tailerra
Ludotekan.

17:30 Kiribilka programa
2-6 urteko haur eta gurasoentzako ekitaldia. Plaza Handian.

19:00 Erakusketa
Maria Teresa Unzuetaren lanak jarriko dira ikusgai hilaren 20ra arte. Kultur Etxean.

22:15 Zarzuela
Masa Coral del Ensanche taldeak "Katiuska" zarzuela eskainiko du Herriko Antzokian.

5 zapatua

11:30 Ate irekiak
Herri Eskolako ate irekien eguna. Jolasak, tailerrak eta bazkaria izango dira.

17:30 Piropro txapelketa
Gaztelekuan.

6 domeka

11:30 Akordeoi topaketa
Akordeoi topaketa egingo da Elgoibarren. Lehenengo kalejira eta ondoren kontzertua Olaizaga kiroldegian.

17:30 Piropro txapelketako finala
Gaztelekuan.

7 astelehena

16:30 Jolas libreak
Ludotekan.

18:00 Tornu ikastaroa
Lurki elkarteak antolatuta, nagusientzako tornu ikastaroa hasiko da. Informazio gehiago: 677 466 344 (Jose)

8 martitzena

17:00 Eskulanak
Ludotekan.

18:00 Sukalde txokoa
Etorkinentzako sukalde txokoa. Gaztelekuan

ESKERTZA



2008ko apirilaren 2an hil zen *Juani San Martin Alberdi* andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



II.URTEURRENA



2006ko apirilaren 5ean hil zen, 79 urte zituela, *Maria Mendikute Ariznabarreta* andrearen oroimenez bigarren urteurreneko meza izango da larunbatean, apirilak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



9 eguaztena

17:30 Eskulanak

Gatz eta irinarekin irudiak egingo dituzte. Gaztelekuan.

16:30 Gorputz adierazpena

Ludotekan.

10 eguena

17:30 Makillaje ikastaroa

Gaztelekuan.

17:30 Gynkana

Elgoibarko txokoak ezagutzeko jolasa. Ludotekan.

11 barixakua

17:30 Kiribilka programa

2-6 urteko haur eta gurasoentzako ekitaldia. Plaza Handian.

Gure gomendioa

Katiuska zarzuela

Gaur, apirilak 4, Herriko Antzokian

Masa Coral del Ensanche taldeak *Katiuska* zarzuela eskainiko du gaur gauean, 22:15etik aurrera Herriko Antzokian. Iraultza boltxebikean gertatutakoak kontatzen dira ikuskizun horretan, 1918an Ukrainako herri bateko ostatuan gertatu zena, alegia. Noble, nekazari, soldadu eta erbesteratuak antzezteko, hamalau lagun aterako dira kantuan.





«Juno»

5, zapatua: 19:00-22:15
6, domeka: 19:00
7, astelehena: 21:30

«Mimzy: más allá de la imaginación»

6, domeka: 16:30

«Luz silenciosa» (zine kluba)

9, eguena: 21:30



ESKERTZA

*Laster arte ezpainetan
utzi gaituzu penetan
orain gure ametsetan
bizirik zaude benetan
zeruko izarretan
eta gure bihotzetan.*

2008ko martxoaren 19an hil zen, **Maria Arrizabalaga Bastida** andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



grafitia

ETORKIZUNA



Hilean behin jarriko dugu herriko gazteen eskura BARREneko horma. Herriko gazteoi emango dizuegu hitza Graffiti atalean, eta nahi duzuen esateko aukera izango duzue. Oraingoan literatur pasarte bat bidali digu Unai Villenak.

“Erabaki ezinean kateatuta nengoen, nora jo ez nekiela. Zer edo zer erabaki, okerrekoa izan zitekeela nekien. Horrek estutzen zizkidan barrenak indarrez, nire mugikortasun oro mugatu eta desagerrarazteraino. Beldurrak jota nengoen, pentsamenduak pentsamenduekin nahastu eta ito egiten ziren nire burmuinean, noraezean, ihesi, bata bestearen ikaraz. Etorkizunari beldurra. Guztiari begira eta ezer ez nuen ikusten: ezereza besterik ez. Isilean hedatzen zen mantu ilun batek hartzen zituen bazter guztiak, ni neu barne. Ez nekien zer erabaki, mutu nengoen, antzutasunaren gatibu, neure baitan giltzapetuta. Argia itzali eta ohe gainera bota nintzen buruz behera, “Zer da ba etorkizuna?” galdetu nion neure buruari ozenki eta pentsatzeari ekin nion. Eta horrela, pentsatu eta pentsatu, lo seko gelditu nintzen. Hurrengo egunean, esnatu nintzenean topatu nuen erantzuna, etorkizuna hori zen: hurrengo egunean esnatzea. Eta hori ez zegoen aldatzerik, baina zein ohetan esnatu bai.”

Unai Villena



Bidali zure oihua, bertsoa, aldarrikapena, marrazkia edo nahi duzuna, eta BARREneko horman jarriko dugu. Helbidea: barren@elgoibarkoizarra.com

Graffiti parte hartzeko izen-abizenak eta telefonoa eman behar diguzue, derrigorrez. Zure izena bistaratu ala ez, berriz, aukeran lagako dizugu.

Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92
www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)

ikastolak etorkizuna ereiten



aurre-matrikulazioa

martxoaren 31tik

apirilaren 11ra

943 744441

www.elgoibarikastola.net

elgoibar@ikastola.net



elgoibar ikastola